# KOLABORAZIOAK

**TXILLARDEGI** / Hizkuntzalari eta idazlea

## *Flandriara begira*

JOAN den otsailaren 19an, behar adina gertakariaren garrantzia azpimarratu ez bada ere, Flandriako Parlamentuak Agiri bat onartu du Euskal Herriari buruz.

Bileran 116 parlamentari egonik, 114k eman dute beren aldeko botoa (2 abstentzio bakarrik). Kontrakorik bat ere ez. Harrigarrizko batasuna! Arrakasta gaitza!

Hots, oso funtsezkoa da akordioaren muinera begiratzea.

Alde batetik, euskal arazoa Auto-Determinazioaren inguruan aztertu da. Flandriarrek, lehenago ere hamaika adituk aldarrikatu izan dutenaren bidetik, Auto-Determinazio eskubidearen ukaeran ikusten dute istiluen gakoa.

Bestetik, eta arazoa funtsetik beretik arazo politikoa denez, elkarrizketa politikoan somatzen dute bakerako soluzio-bidea.

PSOEren eta PPren Flandriar lagunak bertan egon arren, Agiriaren aldeko botoa eman dute.

Konponbidea, hitz batez, Flandriako Parlamentuak erakutsi du garbiki: Auto-Determinazioa helburu, elkarrizketa prozesua zabaltzea.

Eta honek, niri bederen, Telesforo Montzonen oroitzapena dakarkit. Flandriako Parlamentuak Telesforori eman baitio arrazoia urte mordoska pasa ondoren.

Bere 73 urteetan zegoelarik, artikulu mamitsu bat argitara zuen Telesforok EGIN honetantxe (ikus *«El reconocimiento de la Soberanía Nacional del pueblo vasco»*, 1978ko uztailaren 1ean). Eta irakur ditzagun lerro batzuk: *«Lo que ahora nos jugamos, no es el dar un tinte más o menos blanco, o rojo, o verde, o amarillo a la futura Euskadi... Lo que se halla en juego, en este instante, es el reconocimiento, o no, de la soberanía de la nación vasca y su derecho a la autodeterminación»*...

> *«Impasse» honetatik irteteko, progama minimoa. Eta programa honen funtsean: Auto-Determinazio prozesoaren bideraketa*

Telesforo ez zen batere bitxia gakoa hor kokatuz. Parisa Viet-Namen Auto-Determinazioa eta Independentzia eskatzera zihoan delegazioak, bilera-afari publiko bat eskaini zuen Bruselan, Fraintziarako bidean. Eta oso jarrera antzekoa erakutsi zuten negoziatzaileek: «Orain Viet-Nam osoaren Batasuna eta Auto-Determinazioa eskatzen dugu, kanpotar indar militarrek aldegiten dutelarik. Viet-Nam Askatu eta Batu horretan zer bide sozio-politiko hautatuko dugun, vietnamdar herriari dagokio».

Telesforok, Nguyen Giap jeneralak eta Flandriako Parlamentuak bide bera ikusten dute: Auto-Determinazioa. Bada garaia arazoa bere ardatzean jartzeko. Auto-Determinazioa, ala kripto-inperialismoa.

Auto-Determinazioa ardatz bihurtzen bada, alde batean herri honi dagokion eskubide sakratua errespetatzen dutenak agertuko dira; eta beste aldean herri hau kanpotarrek bideratu eta gobernatu behar dutela uste dutenak. Zatiketa funtsezkoa.

Berriro Telesfororen lerro batzuk gogoraziko ditut: *«para nosotros son hoy abertzales, llámense o no por ese nombre, todos los vascos, nativos o inmigrados, que, reconociendo a Euskadi como su patria, recaban para ella la plenitud de soberanía, y el ejercicio pleno de su derecho de autodeterminación»* (1978-VII-1).

Behin eta berriz lortu du etsaiak gure herri zoritxarreko honetan, gure eskubide bat edo beste onartuz, estrategia arrotz eta euskaldunen kontrakotan sartzea. Gure arbasoak *«cristino»* eta *«carlista»* helburutan zatitu eta sarraskitu ziren. Geroago *«pública/privada»* zatiketa mingarria jasan dugu; eta orain *«violento/demócrata»* erdibiketa faltsua. Behin eta berriz gauza bera.

Gaur eta hemen, Telesforok, Giapek eta flandriar Parlamentuak markatu dutenaren bidetik, alde batean gaude herri honen Auto-Determinazio eskubidea eskatzen dugunok. Eta bestean, aitzekia honetan edo hartan, *status-quo franco-español* honen barruan politika egiten dutenak.

Bi bahituen arazoak, kale-istiluek, herri eta herrisketan barrena beldurgarriro hedatzen ari den gorroto-giroak, horretan daukate jatorria. Ez da batere harritzekoa PPk eta PSOEk, erabat baturik, Auto-Determinazioari buruz hitzegin ere nahi ez izatea. Gakoa hortxe baitago.

*Impasse* honetatik irteteko, programa minimoa. Eta programa honen funtsean: Auto-Determinazio prozesoaren bideraketa.

Hitz batez: flandriarrek zehazki markatu diguten bidetik jotzea.

**Juan Ramón ZUBIETE** / Licenciado en Ciencias Económicas

## *Quiero vivir en Corea*

LLEGADOS a este punto de ignominia por parte de partidos políticos y medios de comunicación que, diciendo defender los métodos pacíficos, lo único que hacen es sostener la violencia «buena» frente a la violencia «mala» de ETA, no queda sino sacar un billete de avión y poner rumbo a Corea del Sur.

Allí, al menos, la Policía acude a las manifestaciones de la oposición sin armas de fuego y resiste estoicamente los ímpetus de los manifestantes, pertrechados de palos y adiestrados en la lucha cuerpo a cuerpo. En caso de que el clima coreano no nos guste, también podemos dirigirnos a Albania, ese pequeño país, donde, fíjense qué vergüenza democrática, son los manifestantes cabreados por el timo nacional permitido desde el Gobierno quienes dan soberanas palizas a los demócratas policías guardadores de la ley y el orden.

Que un grupo armado que lucha contra el sistema político imperante emplee las armas en su combate puede ser bien visto, mal visto, o repudiado sin más, según cada cual; pero que una policía (decían que iba ser como los *bobbys* ingleses) se dedique a disparar sobre la multitud con los pies bien plantados en el suelo y a sangre fría, es algo inaudito en cualquier Estado mínimamente democrático de Europa. Si a ello añadimos que la práctica totalidad del arco parlamentario pro-sistema (salvo IU) han aplaudido la balacera de la Ertzaintza nos encontramos ante evidentes síntomas de enfermedad muy grave del actual régimen político.

> *Es posible vivir sin Policía*

Es verdad que los policías, todos ellos, cobran su sucio sueldo mercenario de nuestras contribuciones e impuestos; cierto es que José Manuel Martiarena, justificador de los balazos de Bilbao, era en tiempos un probo abertzale que acudía a Iparralde con alimentos y dinero para los refugiados, simpatizantes de ETA en su mayor parte; también es verdad que una función esencial de la Policía es reventar huelgas justas como la de los transportistas autónomos, escoltando covoyes a empresas capitalistas, cooperativas y sociedades anónimas en general.

Tan cierto como todo esto es que la inmensa mayoría de militantes y simpatizantes de la izquierda abertzale, vieron en su día positiva la creación de la Ertzaintza y aún hoy se muestran a favor de la existencia de una policía vasca, eso sí, nacional y democrática y al servicio del pueblo.



Es cosa imposible, pero lo siguen pensando. Al igual que hay gentes abertzales de buena fe que piensan que la independencia es tener moneda y ejército propio, cosas ambas inútiles y decimonónicas.

¿Que qué defiendo? —preguntarán algunos. Pues algo tan sencillo como la ausencia total y efectiva de fuerzas represivas, sean vascas, navarras, españolas o de la ONU. Es posible vivir sin Policía, incluso sin Ertzaintza y sin Policía Foral. De hecho, a mí nunca jamás me ha ayudado en nada ningún policía. Tal vez yo sea un utópico, pero soñando con utopías se puede llegar a conquistar algo nuevo para este pueblo.

Y es que hay que recalcar de nuevo que en esta película todos somos violentos, ustedes los *sheriffs* y nosotros los forajidos. Lo que nos diferencia a unos y a otros es que ustedes defienden el viejo orden injusto y autoritario y nosotros defendemos un nuevo sistema de valores, donde la persona esté por encima del negocio, donde el pueblo pueda decidir libremente y día a día lo que más le conviene para su futuro. Esa es la raya que nos divide y no la de «demócratas» y «violentos» como quieren hacernos creer con sus homilías y sus documentos. ¿O es que acaso empuñar un arma y dispararla no es un acto violento porque el sujeto que lo hace viste uniforme negro?

egin

ZUZENDARIA: Jabier Salutregi. INFORMAZIOKO ERREDAKTORE BURUAK: Teresa Toda, Mertxe Aizpurua, Carmen Izaga. IKERKUNTZAKO ERREDAKTORE BURUA: Pepe Rei. KIROLETAKO ERREDAKTORE BURUA: Joseba Iturria. IRITZIKO ERREDAKTORE BURUA: Sabino Ormazabal. EUSKADI SEKZIOKO BURUA: Iñaki Altuna. GIZARTE SEKZIOKO BURUA: Bego Zubia. EKONOMI SEKZIOKO BURUA: Joxerra Bustillo. ESTATU-MUNDU SEKZIOETAKO BURUA: Maite Ubiria. KULTURA SEKZIOKO BURUA: Amaia Ereñaga. DISEINU SEKZIOKO BURUA: Javier Esparza. DOKUMENTAZIO SEKZIOKO BURUA: Mariasun Monzon. EUSKARAREN BURU ARDURADUNA: Xalbador Garmendia. GEHIGARRI SEKZIOKO BURUA: Eguzki Agirrezabalaga. BILBOKO ERREDAKTORE BURU DELEGATUA: Martin Garitano. GASTEIZKO ERREDAKTORE BURU DELEGATUA: Iñaki Iriondo. IRUÑEKO ERREDAKTORE BURU DELEGATUA: Fermin Munarriz. GIPUZKOAKO ERREDAKTORE BURU DELEGATUA: Juan Carlos Elorza.